

## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

<b>Departamentua:</b>	03 - ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
<b>Atala:</b>	0340 - Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza Nagusia
<b>Programa:</b>	410 - Haur eta nerabeen babesa
<b>Funtzionala:</b>	231 - Gizarte ekintza

### Programa mota:

Finalista

### Misioa:

Gipuzkoan bizi diren eta babesgabezia arriskuan edo babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeek baldintza egokiak izan ditzaten laguntzea; horren bidez lortu nahi dugun helburua da haur eta nerabe horien garapen osoa erdietsi eta haien eskubide guztiak erabil daitezzen sustatzea, Gipuzkoako Lurraldean lan egiten duten gainontzeko eragileekin batera.

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuak zerbitzuak eta programak garatzen ditu gizarte-zerbitzuaren ikuspegitik, eta haurren eta nerabeen premiak aitortzeko gizarte-sentsibiltatea sustatzen du, bereziki azpimarratuz beren eskubideak baliatzean desberdintasun sakonak sortzen dituzten egiturazko elementuak, hau da, dibertsitate funtzionaltik, generotik, sexualetik, kulturaletik, linguistikotik edo jatorritik eratorritako desberdintasunak.

### Egoeraren diagnostikoa:

Haurrak eskubideen subjektuak dira, eta babesa da babesten dituzten eskubideetako bat. Ikuspegi hori Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak sustatzen du, eta arau-garapen osoari eusten dio, baita gizarte-balioen aldaketari ere. Haurren eta nerabeen eskubideak errespetatzen eta defendatzen dituen gizarte baterantz aurrera egiteak esan nahi du hainbat mailatan jarduteko konpromisoa hartzea, haien ongizatea, eskubideen erabilera eta Tratu Onaren gizarte sustatzera bideratutako neurriak hartuz, eskubide horiek kaltetzen edo urratzen dituzten egoerak agertzea prebenituz, mota horretako egoerak garaiz antzemanaz eta, azkenik, arreta eta babesa emanez eta egoera horiek gertatzean susperraldia erraztuz.

Horixe da programa honen zentzua. Gipuzkoako Lurraldeko Babesteko Erakunde Publikoa den aldetik, Foru Aldundiak arreta-continuum hori garatzeko betebeharra du, Gipuzkoan bizi diren haur eta nerabe guztiak erabat garatu ahal izateko eta beren eskubideak bermekin baliatu ahal izateko.

Horretarako, babesgabezia arrisku edo babesgabetasuneko balizko egoerak goiz identifikatzeko aukera ematen duten sareak garatzen ditu, egon daitezkeen eskubide-urraketa horiek baloratzen ditu, horien kausa azpigoeresgarriak identifikatzen ditu, eta familia-unitatea gaitzeko eta zaintzeko lan-espazioak proposatzen ditu, eta, beharrezkoa denean, babes-neurriak hartzen ditu, familia-harrera, egoitza-harrera edo adopzioetik abiatuta.

Beraz, garapen jasangarriaren helburuekin eta jomugekin guztiz bat datorren programa bat da, bereziki adingabeen ongizateari, justiziarri eta berdintasunari dagokienez.

Programa horrek lotura handia du genero-berdintasunarekin; izan ere, haurrak eta nerabeak zaintzeko garaian harreman desagokiak eta genero-estereotipo oso okerrak dituzten familia-unitateetan jarduten du. Funtsezko rola ere badu indarkeria matxistaren biktima diren adingabeei arreta emateko orduan, bai indarkeriaren hartzaile zuzenak direlako, bai indarkeria horren eraginpean dauden familia-unitateetako kide direlako. Horregatik, programaren erronketako bat da beste eragile batzuekin koordinatuta lan egitea, indarkeria horren eraginpean egoteak dakartzan ondorio kaltegarriak gainditzeko.

Programa hau oso delikatu denez, nahitaez garatu behar da lanerako irizpide eta prozedura oso zorrotzak eta koherenteak ezarri, eta horrek metodologia aurreratua eta ebaluatua hartzera behartzen du.

### Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako Foru Aldundia da Gipuzkoan haurren babeserako arloan eskumena duen erakunde publikoa eta, beraz, aipatutako eskubideak bermatu behar ditu, sentsibilizazioa sustatuz, umeen hazkuntzan arazoak dituzten familia-unitateei laguntza eta prestakuntza emanez, eta babesgabetasun egoeran dauden umeak babestuz. Horretarako, haurren babeserako arloan bere eskumenak erabiltzeko, zerbitzu sare bat eratu behar du pixkanaka, ongizateari dagokionez galera handiak dituzten haurrak babestu ahal izateko, eta, halaber, beste eragile batzuekin egin behar du lan haurren babes sistema antolatzeko.

### Nori zuzendua:

Haurrak eta nerabeak / Familiak

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Programak, baliabideak, zerbitzuak eta prestazioak, gizarte babesik gabeko egoeran dauden haur eta nerabeen babesa bermatzen dutenak.  
Langile propioak, laguntza teknikoak eta aurrekontu kredituak.

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

Haurren babesgabetasun egoera larriak balioetsi eta bideratzen lagundu; haurra jatorrizko familia-unitatean bizi ahal izateko behar diren gizarte eta hezkuntza arloko eta arlo psikosozialeko programak antolatu; eta babesgabezia egoeran dauden haurren babesa aktibatu, familia harrera, egoitza harrera edo adopzioaren bitartez.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Haur babesgabezia egoeren balioespen eta orientazioko zerbitzua. / Egoitza harrerako zerbitzua / Familia harrerako zerbitzua / Adopzio zerbitzua / Esku hartze gizarte-hezkuntzazko edota psikosozialerako zerbitzua.

**Programaren arau esparrua:**

1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoarena, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea (ABJLO) partzialki aldatzen dituen, funtsean honako hauek aldatua: 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena, eta 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena / 4/2024 Legea, otsailaren 29koa, Haur eta Nerabeena / 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Osoki Babestekoa (LOPIVI) / 3/2007 Legea, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarriakoa/2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko arau-garapena eta erreferentziatzeko planak: Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana, Familien eta Haurren aldeko Euskal Ituna eta Haurren eta Nerabeen aurkako Indarkeriaren aurkako Euskal Estrategia (2022-2025)

**DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA**

**Urteko helburua:** Arretaren eta zainketen berrikuntza eta pertsonalizazioa sustatzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Haurren babeserako espediente irekia duten 1/10.000 adingabe tasa, Gipuzkoako 18 urtetik beherako biztanleriari dagokionez	Kopurua	>=	13,12	14,00	14,00	15,00
Haurrak babesteko espedientea irekita duten adingabeen kopurua	Kopurua	>=	100,00	100,00	100,00	100,00
Emakumezkoak			42,80	44,00	44,00	45,00
Gizonezkoak			57,20	56,00	56,00	55,00
Abenduaren 31n irekitako babes-espedienteen batez besteko adina	Kopurua	>=	12,21	12,15	12,15	12,00

**Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak**

## 1. Ekintza lerroa:

Babes-sistemaren eta agente eta sistema laguntzaileen begirada doitzea, neskek mutilen aurrean dituzten zailtasunak eta ondoezak hautemateko eta ulertzeko.



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
--	----------------------	---------------------------	---------------	--------------	--------------	--------------------

### Ekintza lerroa, guztira

7.152.527,08

2025/01/01

2025/12/31

#### 1.1 Ekintza

Arreta jasotzen duten haur eta nerabeentzako prestakuntza antolatzea, sexu-askatasunaren aurkako delituak edo genero-indarkeriako delitu bat adierazten duten delituak prebenitzeko eta detektatzeko.

38.517,56

2025/01/01

2025/12/31

#### 1.2 Ekintza

Haurren eta Nerabeen Babeseko Sistemako profesionalentzako prestakuntza-programa bat diseinatzea, hasierako eta etengabeko prestakuntza jasoko duena.

68.964,46

2025/01/01

2025/12/31

#### 1.3 Ekintza

Zerbitzuan eta lantalde eta baliabideetan erreferentziatzeko figurak izendatzea, bertan artatutako haur eta nerabeek jasaten ari diren edo ezagutzen duten indarkeria-egoera bat konfidentzialtasunez komunikatu ahal izan dezaten.

38.200,86

2025/01/01

2025/12/31

#### 1.4 Ekintza

Balorazio-prozesuak eta -tresnak birpentsatzea eta dimentsionatzea, haurra edo nerabea prozesuaren erdigunean kokatzeko eta erantzunak hobetu eta arinduko dituzten dinamika arin eta eraginkorrak ezartzeko.

434.807,54

2025/01/01

2025/12/31

#### 1.5 Ekintza

Bereziki kalteberak diren neska nerabeak (bereziki, neska edo nerabe polibiktimizatuak, sexu-esplotazioaren biktimak...) artatzeko berariaz sortutako egoitza-programa bat diseinatzea eta ezartzea.

6.533.835,80

2025/01/01

2025/12/31

#### 1.6 Ekintza


Sexu-aniztasunari buruzko edukiak dituzten babes-sistemako profesionali zuzendutako hasierako eta etengabeko prestakuntza ematea, bai eta LGTBIQ+


38.200,86

2025/01/01

2025/12/31



	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
haurren beharrei erantzuteko jarraibideak eta gomendioak ere.						
<b>2. Ekintza lerroa:</b> Jarrera negatiboak, testuinguruak eta eskubideak kaltetzen edo urratzen dituzten egoerak garatzea saihestea, saihestu nahi diren jokabideak, testuinguruak eta egoerak sortzen dituzten kausen gainean jardunez.						
 % 100,00						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	<b>561.303,49</b>			<b>2025/01/01</b>	<b>2025/12/31</b>	
<b>2.1 Ekintza</b> Familien mentoretza-programa bat diseinatzea eta ezartzea, arriskuak murrizteko helburuak dituzten beste familia batzuei zuzendua.	141.934,73			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.2 Ekintza</b> Prestakuntza ematea babes-sistemako profesionali (bereziki, egoitza-harrerako baliabideetan jarduten dutenei), banden inplikazioa prebenitzera eta detektatzera bideratutako eduki espezifikoekin.	39.179,56			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.3 Ekintza</b> Udalerrietan egoera kaltegarriak eta eskubide-urratzaileak prebenitzeko programak abian jartzen laguntzea, horiek ezartzeko aholkularitza teknikoko zerbitzua eskainiz	157.593,70			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.4 Ekintza</b> Haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko tokiko eta auzo-sareak sortzera bideratutako ekimenak bultzatzea, eta egoera kaltegarriak edo eskubide-urratzaileak prebenitzeko bideak eratzea	36.103,20			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.5 Ekintza</b> Izeba Programa indartzea, haren estaldura handituz, eta berrikuntza-elementu bat sartzea, hau da, programan erreferentziatzeko figura gisa txertatzea aldez aurretik beren esparruan arreta jaso duten eta beren esperientzia jar dezaketen gazteak.	129.276,40			2025/01/01	2025/12/31	


	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>2.6 Ekintza</b> Arreta mistoko eguneko zentro bat sortzea, Hezkuntza eta Osasunarekin lankidetzan, buru-nahaste larria artatzeko.	57.215,90			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3. Ekintza lerroa:</b> Eskubideak urratzen edo kaltetzen dituzten egoerak jasan dituzten haur eta nerabeen berreskurapena eta garapen osoa eta harmonikoa bultzatzea, bereziki indarkeria matxistaren biktima direnekin.						
 % 100,00						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	<b>21.918.625,66</b>			<b>2025/01/01</b>	<b>2025/12/31</b>	
<b>3.1 Ekintza</b> Gida bat eta liburuxka bat diseinatzea Babes Sistemara sartzen diren haur eta nerabeentzat, honako hauei buruz: haien eskubideak, jarraituko den prozedura, izan ditzakeen inplikazioak, erabakiak hartzean izan dezaketen parte-hartzea...	36.103,20			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.2 Ekintza</b> Babes-sisteman sartzen diren gurasoei zuzendutako gida bat eta liburuxka bat diseinatzea eta zabaltzea, honako gai hauei buruz: beren eskubideak eta betebeharrak, jarraituko den prozedura, har daitezkeen neurriak, erabakiak hartzen parte hartzea...	36.103,20			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.3 Ekintza</b> Esku-hartze programetan edo egoitza-harrerako baliabideetan esku hartzen duten profesionalei zuzendutako hasierako eta etengabeko prestakuntza ematea, hazkuntza terapeutikoari buruzko eduki espezifikoekin	43.486,46			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.4 Ekintza</b> Kasu planaren eredua berrikustea eta eguneratzea, epe labur, ertain eta luzerako helburuak aurreikusi ahal izateko.	36.103,20			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.5 Ekintza</b> Familia-harreraren, adopzioaren eta adopzio osteko harreraren balorazio- eta arreta-taldeak birdimentsionatzea, erantzunaren arintasuna hobetzeko eta, horrela,	410.618,48			2025/01/01	2025/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
egoitza-harrerako baliabideetan aldez aurretik sartzea sailhesteko eta porrotak prebenitz						
<b>3.6 Ekintza</b> Premia bereziak dituzten haur eta nerabeei zuzendutako familia-harrera espezializatuaren modalitatea bultzatzea, hiru modalitate bereiziz	1.733.169,20			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.7 Ekintza</b> Larrialdiko harrera berriz diseinatzea, profil desberdinetarako ibilbideak ezarri, nerabeak bereziki kontuan hartuta, eta esku-hartze azkarra eta intentsiboa diseinatzea, erabakiak hobeto eta azkarrago dituko direla bermatzeko.	6.555.370,32			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.8 Ekintza</b> Inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileentzako premiazko harrera birdimentsionatzea.	6.533.835,80			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.9 Ekintza</b> Zentro soziosanitario bat sortzea buru-nahaste larriari modu terapeutikoan heltzeko, eta sarrera familia-etxetik antolatzeke beharrezko neurriak hartzea, bi urteko epean funtzionamenduaren ebaluazioa aurreikusiz.	6.533.835,80			2025/01/01	2025/12/31	
<b>Urteko helburua:</b> Zainketen ebaluazioa garatzea						
<b>Adierazlea</b>	<b>Neurri-unitatea</b>	<b>Helburu mota</b>	<b>Azken balioa</b>	<b>Aurtengo aurreikuspena</b>	<b>Urteko helburua</b>	<b>Agintaldiko helburua</b>
Haurrak babesteko indarrean dauden neurrien batez besteko iraupena	Kopurua	>=	1.516,00	1.495,50	1.487,50	1.475,00
Emakumezkoak			1.516,00	1.457,00	1.450,00	1.475,00
Gizonezkoak			1.516,00	1.534,00	1.525,00	1.475,00
Haurrak babesteko abenduaren 31n indarrean dauden legezko neurrien kopurua	Kopurua	>=	758,00	785,00	785,00	775,00
Hurbildu programako jardueraren batean parte hartzen duten udalen kopurua	Kopurua	>=	56,00	60,00	60,00	65,00
<b>Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak</b>						



**1. Ekintza lerroa:**

Genero-estereotipoak gainditzeko lanean jarraitzea, pertzepzioak eta jarrerak aldatzea sustatuz eta analisi hori lan-prozeduretan sartuz



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	13.836.778,48			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.1 Ekintza</b> Haurren eta nerabeen zerbitzuetatik emakumeen aurkako indarkeria matxistari ematen zaion arreta hobetzeko lan-plan bat definitzea eta abian jartzea	50.506,30			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.2 Ekintza</b> Genero-berdintasunari buruzko prestakuntza-modulu bat diseinatzea eta ematea, haurrak eta nerabeak babesteko sistemak artatutako haur eta nerabeentzat.	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.3 Ekintza</b> Egoitza-harrerako baliabideak ebaluatzea, haien diseinua, hornidura materiala, plantillaren osaera eta funtzionamendu-jarraibideak egokiak diren zehazteko, ingurune lagunkoiak, seguruak eta irisgarriak direla bermatzeko	8.137.679,04			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.4 Ekintza</b> Familia barruko indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeentzako espazio integral bat diseinatzea eta abian jartzea	5.567.730,70			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.5 Ekintza</b> Artatutako LGTBIQ+ haur eta nerabeen sexu-aniztasuna identifikatzeko, nortasun hori garatzen laguntzeko eta egoera horrek zailtasunak sorrarazten dituen kasuetan jarduteko jarraibideak prestatzea	42.661,58			2025/01/01	2025/12/31	

**2. Ekintza lerroa:**

Gipuzkoako haur eta nerabeen errealitatea eta, bereziki, kalteberatasun-egoerak hobeto ezagutzea, prebentzio-, detekzio-, arreta- eta babes-sareek emandako erantzunak hobeto doituko direla bermatzeko.




% 86,21



	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	<b>298.289,55</b>			<b>2025/01/01</b>	<b>2025/12/31</b>	
<b>2.1 Ekintza</b> Zerbitzuari aldez aurretik artatutako pertsonen iritzia emateko aukera emango dion bide bat sortzea, beren esperientziatik abiatuta, hartutako politikei edo jarduera-ildoei buruzko iritzia eman dezaten.	50.506,30			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.2 Ekintza</b> Kalteberatasun-egoeran, babesgabetasun-arriskuan edo babesgabetasunean dauden haur eta nerabeei zuzendutako udal eta foru mailako programa eta zerbitzuen mapa prestatzea eta eguneratzea	165.382,63			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.3 Ekintza</b> Erabakiak hartzen diren prozeduretan eta egoitza-programen eta -baliabideen funtzionamenduan adingabeei eta familiei ematen zaien parte-hartzea ebaluatzea	41.277,22			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.4 Ekintza</b> Dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeen irisgarritasunaren diagnostikoa egitea Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren programa eta ekipamenduetan.	41.123,40			2025/01/01	2025/12/31	
<b>Urteko helburua:</b>	Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren modernizazio antolatzailea eta digitala.					
Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Haurren babesgabetasun posibleari buruz urtean jasotako jakinarazpenen guztizko kopurua	Kopurua	>=	786,00	850,00	850,00	1.000,00
Haurren babesgabetasun posiblearen jakinarazpenen batez besteko adina murriztea	Kopurua	>=	10,11	9,53	9,47	9,25
Emakumezkoak			9,96	9,96	9,90	9,50
Gizonezkoak			10,26	9,09	9,05	9,00
Familia gaitzeko programetakoren batean inplikaturako haurren kopurua	Kopurua	>=	1.027,00	1.025,00	1.025,00	1.050,00
Emakumezkoak			484,00	500,00	500,00	525,00



Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Gizonezkoak			543,00	525,00	525,00	525,00
<b>Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak</b>						
<b>1. Ekintza lerroa:</b>						
Koordinazioa eta lankidetzaren helburu partekatuak lortzera eta esku-hartzeen eraginkortasuna hobetzera bideratutako lanerako tresna eraginkor eta naturalizat har daitezzen lortzea.						
 <p>% 100,00</p>						
	<b>Ordainketa kredituak</b>	<b>Datozen urteetako gastuak</b>	<b>Sarrera lotua</b>	<b>Hasiera data</b>	<b>Bukaera data</b>	<b>Etorkizuna eraikiz</b>
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	<b>1.033.233,98</b>			<b>2025/01/01</b>	<b>2025/12/31</b>	
<b>1.1 Ekintza</b>	<b>38.200,86</b>			<b>2025/01/01</b>	<b>2025/12/31</b>	
Gizarte-zerbitzuen eta Hezkuntza Sailaren arteko lankidetzaren eta koordinazio-protokoloa berrikustea, haren edukia egokitu eta eguneratzeko.						
<b>1.2 Ekintza</b>	<b>37.353,22</b>			<b>2025/01/01</b>	<b>2025/12/31</b>	
Osakidetzarekin lankidetzaren eta koordinazio-protokolo bat adostea, tutoretzapeko haur eta nerabeei arreta emateko eredu partekatu batetik abiatuta elkarrekin jarduteko aukera emango duena.						
<b>1.3 Ekintza</b>	<b>38.200,86</b>			<b>2025/01/01</b>	<b>2025/12/31</b>	
Osakidetzarekin haurren eta gazteen osasun mentalari ekiteko eredu partekatu bat adostea, Zerbitzuak artatzen dituen herritarren beharrei erantzuteko						
<b>1.4 Ekintza</b>	<b>403.487,06</b>			<b>2025/01/01</b>	<b>2025/12/31</b>	
Indarkeria Matxistaren Biktimaren Emakumeen Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzuarekin adostea aplikatu beharreko balorazio- eta arreta-irizpideak eta -prozesuak, haien egoerak eta premiei bi zerbitzuen esku-hartzea eskatzen dutenean						
<b>1.5 Ekintza</b>	<b>38.200,86</b>			<b>2025/01/01</b>	<b>2025/12/31</b>	
Talde bakoitzarekin ekintzak garatzea, adingabeek eta haien senideek eragiten dieten erabakietan duten partaidetza-terekin berrikusteko						
<b>1.6 Ekintza</b>	<b>38.200,86</b>			<b>2025/01/01</b>	<b>2025/12/31</b>	
Kontsulta-talde bat sortzea, Zerbitzuak artatutako haur eta nerabeen parte-hartze zuzena edo adierazgarria erraztuko duena, eta Zerbitzuari lotutako gaiak eztabaidatzeko						

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
eta arduradunei iritzia helarazteko aukera emango diena.						
<b>1.7 Ekintza</b> HNZTek udalei aholkuak emateko eginkizuna egituratzea, ez soilik bideratze-faserako, baita prebentzio-eginkizunak eta arrisku-egoerei arreta ematekoak ere.	401.389,40			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.8 Ekintza</b> Kordinazio-bide egonkorak artikulatzea eta Zerbitzuko taldeen artean eta talde horien eta erakunde laguntzaileen artean lan-metodo partekatutak diseinatzea	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2. Ekintza lerroa:</b> Sustapena, prebentzioa eta detekzio goiztiarra politika publikoen funtsezko dimentsio bihurtzeko lortzea.						
 <p>% 100,00</p>						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	<b>4.697.409,10</b>			<b>2025/01/01</b>	<b>2025/12/31</b>	
<b>2.1 Ekintza</b> Pertsona harreragileentzako prestakuntza-plan bat diseinatzea, haur eta nerabeen beharren eta ibilbideen arabera bereizitako edukiekin eta hazkuntza terapeutikoari buruzko eduki espezifikoeekin.	1.355.673,06			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.2 Ekintza</b> Espedientea osatzen duen dokumentazioa eta, adoptatuen kasuan, jatorriari buruzko dokumentazioa eskuratzeko erraztasun- eta laguntza-prozesuak antolatzea.	437.833,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.3 Ekintza</b> Haurren eta nerabeen bizi-liburua sistematikoki txertatzea, bai familia-harreran, bai egoitza-harreran.	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.4 Ekintza</b> Mentoretza-programetan familia harreragileen, adopziokoen eta laguntzaileen erakarpina areagotu dezaketzen bide egonkorak eta egituratuak integratuko dituen estrategia diseinatzea	1.376.785,76			2025/01/01	2025/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>2.5 Ekintza</b> Familia-harreran hausturak prebenitzeko esku hartzeko metodologia diseinatzea.	1.416.709,16			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.6 Ekintza</b> Gurasoen urruntze-agindua dagoenean, tutoretzapeko haur eta nerabeen eta tutoretzarik gabeko anai-arreben arteko harremana errazteko eta bermatzeko formulak artikulatzea.	36.103,20			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.7 Ekintza</b> Informazio-saioak antolatzea, babes-sistemak zaindutako haur eta nerabeen arretan pertsonak inplika daitezkeen moduei buruz: adibidez, mentorien bidez, harrera-modalitateen bidez edo beste batzuen bidez.	36.103,20			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3. Ekintza lerroa:</b> Kalitatearen kultura eta kalitatearen etengabeko hobekuntza sartzea haurrak eta nerabeak artatzeko zerbitzuetan eta zentroetan, ekintza publikoaren sektore guztietan						
 % 98,90	 % 0,55					
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	<b>6.939.054,76</b>			<b>2025/01/01</b>	<b>2025/12/31</b>	
<b>3.1 Ekintza</b> Haurrak eta nerabeak babesteko espediente digitalaren egitura eta edukia definitzea eta hura ezartzea.	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.2 Ekintza</b> Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren barruan egituratutako hausnarketa-prozesuei ekitea, egungo funtzionamendurako alternatibei buruz.	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.3 Ekintza</b> Kasuen azterketa sistematikoki sartzea, erabakitzeke eta esku hartzeko irizpideak eztabaidatzeko eta partekatzeke bide gisa	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.4 Ekintza</b> Haurren eta Nerabeen Erakundearteko eta Sektore Arteko Kontseilua edo Lurralde Mahaia eratzea sustatzea, kontsultarako.	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	



	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>3.5 Ekintza</b> Kudeaketa hobetzeko aukera emango diguten tresna informatikoen diseinuan aurrera egitea: laguntza ekonomikoak kudeatzeko funtzionalitate informatikoa ezartzea, datuak ustiatzeko eta aurkezteko tresna guztiak garatzea...	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.6 Ekintza</b> GFAko Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren aplikazio informatikoak eraginkortasunez erabiltzeko prestakuntza ematea, bereziki talde-lanerako aplikazio interaktiboak.	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.7 Ekintza</b> Kalitatearen kulturaren eta arretaren etengabeko hobekuntzan aurrera egitea, tresna eta tresna berriak aktiboki bilatuz. Egoitza-harreraren CARE (Child and Residencial Experiences) programaren garapena aztertzea	6.535.933,46			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.8 Ekintza</b> Arretaren kalitate-kultura finkatzea, etengabeko zalantza eta arreta etengabe hobetzeko prozesuen aplikazio normalizatuan oinarrituta (ebaluazioa, autoebaluazioa, prestakuntza parte-hartzailea, kalitate-taldeak, inkestak,.).	59.313,56			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.9 Ekintza</b> Datu pertsonalak babesteari buruzko prestakuntza ematea Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuko profesionaleri	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.10 Ekintza</b> Horiek osatzen dituzten prozedurak eta jarduerak berrikustea, bai eta Zerbitzuan garatutako esku-hartzeak ere, Ekintza Planaren printzipioekin bat datozen egiaztatzeko eta, behar izanez gero, neurriak sartzeko.	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>3.11 Ekintza</b> Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berrituak txertatu	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	


**Urteko helburua:** Haur eta nerabe guztien zaintza eta babesa bermatzea, arreta pertsonalizatuaren, kalitatezkoaren eta inklusiboaren bidez, berrikuntzan eta berdintasunean oinarritutako gizarte zerbitzuen sarea indartuz, konektatuz eta ebaluatuz

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Familia-harreran irekitako kasuen %, harreraren guztizkoari dagokionez	Ehunekoa	>=	50,00	50,00	50,00	50,00
Emakumezkoak			45,39	46,75	47,00	48,00
Gizonezkoak			54,61	53,25	53,00	52,00
Egoitza-harreran artatutako haur eta nerabeen kopurua abenduaren 31n	Kopurua	>=	456,00	482,00	485,00	485,00
Emakumezkoak			171,00	181,00	185,00	185,00
Gizonezkoak			285,00	301,00	300,00	300,00
Familia-harreran artatutako haur eta nerabeen kopurua abenduaren 31n	Kopurua	>=	343,00	348,00	350,00	370,00
Emakumezkoak			151,00	155,00	160,00	175,00
Gizonezkoak			192,00	193,00	190,00	195,00

#### Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

##### 1. Ekintza lerroa:

Gizarte bat sortzen laguntzea, non haurren eta nerabeen ongizatea, bizi-kalitatea eta erabateko garapena lehentasuna, konpromisoa eta erantzukizun kolektiboa izango diren, eta bereziki azpimarratuko dira haien erabateko jarduna zailtzen duten desberdintasunak.



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	733.265,23			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.1 Ekintza</b> Eskubideak sustatzeko eta egoera kaltegarriak eta eskubide-urraztaileak prebenitzeko eta garaiz hautemateko esparru integral bat diseinatzea eta gidatzea toki-mailan	427.975,11			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.2 Ekintza</b> Haur eta Nerabeentzako Ekintza Plana eragileekin batera aurkeztea eta gizarteratzea	36.720,26			2025/01/01	2025/12/31	



	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>1.3 Ekintza</b> Haur eta Nerabeentzako Ekintza Planaren gobernantza-eredua definitzea eta ezartzea	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.4 Ekintza</b> Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemari buruzko dibulgazio-kanpaina bat diseinatzea eta abiaraztea, irudi osoagoa eta atsegina emango duena, babes-funtzioekin ez ezik, sustapenarekin, prebentzioarekin eta detekzioarekin ere lotuta.	38.206,30			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.5 Ekintza</b> Gurasoek hezkuntza afektibo eta sexual osasungarria eskuratzeko programak diseinatzea eta ematea, babes-sistemaren esparruan, seme-alabei prebentzio-elementuak helarazteko.	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.6 Ekintza</b> Haurren Nazioarteko Eguna ospatzeko jarduerak antolatzea, lurraldean dauden haurren foreok antolaketan parte har dezaten saiatuz	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.7 Ekintza</b> Arrakasta eta Erronkak programak bultzatzea, estaldura handituz eta babesaren eremuan esku hartzeko programa guztietara zabalduz.	38.780,06			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.8 Ekintza</b> Eskola- eta ikasketa-errefortzuko programak (Ikaslagun, Krono eta Eskutik) bultzatzea, estaldura handituz eta babesaren eremuan esku hartzeko programa guztietara zabalduz.	38.780,06			2025/01/01	2025/12/31	
<b>1.9 Ekintza</b> Haurren eta Nerabeen Lege berria onartu ondoren, lege horren edukiei buruzko dibulgazio-kanpaina bat diseinatu eta abiaraztea, haurren eta nerabeen eskubideak eta betebeharrak azpimarratuz.	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2. Ekintza lerroa:</b> Haur eta nerabeentzat kaltegarria den edo haien eskubideak urratzen dituen egoera bat agertzeak ekar ditzakeen arriskuak eta kalteak mugatzea.						



	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	7.505.638,28			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.1 Ekintza</b> Zeuk Esan zerbitzuari buruzko informazio-saioak antolatzea Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemako profesionalen artean	38.200,86			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.2 Ekintza</b> Haurren eta nerabeen eskubideen urratzaileei lotutako segurtasunik gabeko egoerak (bullying-a, sexu-erasoa, indarkeria matxista, diskriminazioa...) prebenitzeko, hautemateko eta horiei aurre egiteko jarduketa-protokoloak diseinatzea.	50.506,30			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.3 Ekintza</b> Laguntza ekonomikoetarako irizpideak berrikustea eta eguneratzea, eta dekretu arautzaile berri bat argitaratzea.	4.165.645,56			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.4 Ekintza</b> Bideratu programaren kontratuan eragileei aholkuak emateko jasotzen den funtzio berria ezartzea eta gizarteratzea	850.554,06			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.5 Ekintza</b> Bideratu programan estaldura-irizpide berriak birformulatzea eta ezartzea	850.554,06			2025/01/01	2025/12/31	
<b>2.6 Ekintza</b> Esku-hartze psikoterapeutikoaren eredu berria hedatzea, profesionalen hasierako prestakuntza egitea eta akreditazio-prozesua abian jartzea	1.550.177,44			2025/01/01	2025/12/31	

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Haurrak eta nerabeak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen zehatua:**

Haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegitik, gure jardunak ezin du genero-azterketa alde batera utzi, ulertzeko genero-rolen eraikuntza kulturalak eta sozialak nola eragiten duen haien bizitzetan, bereziki ahulenetan, eta haurrak eta nerabeak bizitzako une guztietan babesteko estrategia espezifikoak lantzeko, aukera-berdintasuna eta ahalduntzea sustatuz. Helburua da aitortzea genero-erolek arrisku eta ahultasun desberdinak eragiten dizkietela haurrei, eta haien premiak eta erabakiak desberdinak izan daitezkeela, haien trebetasunak, ezagutzak eta erantzuteko estrategiak bezalaxe.

Aintzatespen horrek, programa honen bidez, sozializazio-ereduak zaintzera garamatza, diskriminaziorik eta indarkeriarik gabeko ahalduntze- eta garapen pertsonaleko prozesuak ahalbidetu eta indartuko dituztenak. Programa, baliabide eta profesional guztiek programazio/esku-hartze/ebaluazio ziklo osoan genero-inplikazioak kontuan hartzea eskatzen digu, adingabeen protagonismoa bermatuz. Horregatik, ezinbestekoa da begirada genero-desberdintasunetan eta -estereotipoetan jartzea, genero-desberdintasun errepikari mota guztien detekzio goiztiarrean sakonduz, gure esku-hartzearen bidez ekitatearen, justiziaren eta genero-berdintasunaren ikuspegitik inpaktu mesedegarria lortzeko.

**Kuantifikazioa:** 10.039.519,09 ( % 15,52 )

**Ordainketa kredituak:** 10.039.519,09 ( % 15,52 )

**Datozen urteetako gastuak:** 0,00 ( % 0,00 )

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Ek.HO.10.2. Bizitzaren esparru guztietan emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien rol eta estereotipoen hausturan aurrera egitea.	Ek.10.2.1.Haur eta gazteentzako foru zerbitzuetan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko eduki eta jarduerak sartzea.	( % 30,00 )	
Ea.HO.8.2 GFaren genero zeharkakotasunaren strategiaren bidez, emakumeen ahalduntzea sustatzea.	Ea.8.2.4. Neska nerabeen ahalduntzea sustatzea GFAk sustatutako haur, nerabe eta gazteentzako programen eta guneen esparruan.	( % 33,00 )	
I.HO.14.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari nola heltzen zaion hobeto ezagutzea, indarkeria egoera horiek berariaz erantzuten ez dituzten foru zerbitzu eta baliabideetatik."	V.14.2.3. Haurtzaroan eta nerabezaroan sexu-indarkeria matxista prebenitzeko eta detektatzeko tresnak sortzea, bai espazio komunetan, bai espazio espezifikoetan, hala nola kirol- eta aisialdi-espazioetan.	( % 30,00 )	
I.HO.14.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arbuio soziala handitzea, indarkeria mota hori eragiten duten generoko desberdintasunak daudela ulertuta.	I.14.3.2. Egindako kalteari erantzun publikoa emateko eta erreparazio kolektiboa gauzatzeko eskubidea sustatzea, indarkeria matxista jasaten duten emakumeak berriz ere biktima izan daitezen saihesturik.	( % 40,00 )	





Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
I.HO.15.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko eredia beste foru baliabideetara, espezifikoki indarkeriaren arlokoak ez direnetara, zabaltzea.	I.15.2.1. Indarkeria matxistaren arloko foru lan guneak egokitzea, gai horri erantzuteko zerbitzu guztiak lan gune horietan bil daitezzen, eta horrenbestez, biktimekiko arreta modu integralean eta koordinatuan bideratu ahal izan dadin.	( % 50,00 )	
	I.15.2.2. Haurrei eta nerabeei zuzendutako zerbitzuetatik, emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arreta hobetzeko lan plan bat zehaztea eta abian jartzea.	( % 50,00 )	

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEN PLANA

### Beharraren deskribapen xehatua:

Herritarren hizkuntza eskubideen erabilera erabat bermatzea, bereziki programa honetan artatzen dituzten adingabeen eta horien familiakoena, baita eragile eta sistema kolaboratzaile guztiena ere. Horrek esan nahi du euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa artikulatu behar dela programa honetan zabalduzako ekintza guztietan.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	Kontua da kontratuetan, programa-kontratuetan eta hitzarmenetan klausula linguistikoak ezartzea, perspektiba bikoitzean aurrera egin ahal izateko. Alde batetik, erakundeak euskararen erabilerari buruzko ebaluazio eta plangintzara behartuz, eta, bestetik, barrura, ildo beretik, euskara gure Zerbitzuaren lan-hizkuntza izan dadin lortzeko.
8.- Herritarrekiko harremanak	Herritarrekiko harremanetarako euskara lehentasunezko hitzkuntza izan dadin txertatzea prozesu hauetan
9.- Barne-harremanak	Talde desberdinen arteko harremanetarako euskara komunikazio tresna izan dadin lan egitea
10.- Kanpo-harremanak	Euskara aldagai gisa sartu baliabideen maparen kategorizazioan
12.- Baliabide informatikoak	Baliabide informatiko guztiak euskara hutsean erabiliz

## PARTAIDETZA PLANA

### Beharraren deskribapen xehatua:

Programaren misioa gizarte-kohesioarekin eta aukera-berdintasunarekin lotuta dago. Beren eskubideak arriskuan ikus ditzaketen eta zaugarritasun-egoeran dauden haur eta nerabeekin lan egiten dugu. Haurrak gizartearen zati garrantzitsu bat dira, eta bistaratzea eta protagonismoa behar dituzte.

Gainera, etorkizunean zailtasunak izan ditzakete gizarte-kohesioan, herritar gisa aktiboki parte hartzeko orduan.

Kontuan izan behar da haurrak eta nerabeak ez direla helduen ekintzen hartzaile pasiboak, eragile aktiboak direla, beren garapenaren protagonistak, eta, ondorioz, beharrezkoa dela adingabe batek aktiboki parte hartzea bere garapenaren eraikuntzan.

<b>Kuantifikazioa:</b>	220.827,38	( % 0,34 )
<b>Ordainketa kredituak:</b>	220.827,38	( % 0,34 )
<b>Datozen urteetako gastuak:</b>	0,00	( % 0,00 )

Kategoria	Kategoria %	Nola
1. HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA	( % 100,00 )	7. Bestelako partaidetza prozesuak

GJH


**Beharraren deskribapen xehatua:**


Haurrak eskubideen subjektu dira. 1989an Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa argitaratu zenetik, pixkanaka, adingabea eskubideen subjektu delako ideia ezarri da, eta ez soilik babesaren xede. Haurrak eta nerabeak garapen bidean dauden subjektutzat hartu behar dira, eboluzio-etapa bakoitzean ezaugarri espezifikoak dituztenak eta, ondorioz, behar espezifikoak dituztenak. Haurrak babesteko sistema baten azken helburua izan behar da, gizarte osoarekin batera, komunitatearekin batera, haur edo nerabe orori ingurune seguru eta babesle bat ematea, maitatua eta errespetatua izan dadin eta bere ahalmen osoa garatu ahal izan dezan.

Ikuspuntu horretatik, programa honek gizarte-kohesioari eta aukera-berdintasunari laguntzen dio.

**Kuantifikazioa:** 64.596.801,35 ( % 99,88 )

**Programari lotutako GJH zerrenda**

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	16-Bakea, justizia eta instituzio sendoak Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	<b>64.558.600,49</b>	
<b>Helburua</b>	16.02 - Amaiera ematea haurren kontrako tratu txarrei, esplotazioari eta indarkeria- eta tortura-mota guztiei	64.558.600,49	
<b>Ekintza lerroak</b>			
	Koordinazioa eta lankidetzat helburu partekatutako lortzerak eta eskuhartzeen eraginkortasuna hobetzerak bideratutako lanerako tresna eraginkor eta naturaltzat har daitezkeen lortzerak.	1.033.233,98	
	Sustapena, prebentzioa eta detekzio goiztiarra politika publikoen funtsezko dimentsio bihurtzeko lortzerak.	4.697.409,10	
	Kalitatearen kultura eta kalitatearen etengabeko hobekuntza sartzeko haurrak eta nerabeak artatzeko zerbitzuetan eta zentroetan, ekintza publikoaren sektore guztietan	6.862.653,04	
	Babes-sistemaren eta agente eta sistema laguntzaileen begirada doitzeko, neskek mutilen aurrean dituzten zailtasunak eta ondorenak hautemateko eta ulertzeko.	7.152.527,08	
	Jarrera negatiboak, testuinguruak eta eskubideak kaltetzen edo urratzen dituzten egoerak garatzea saihestea, saihestu nahi diren jokabideak, testuinguruak eta egoerak sortzen dituzten kausen gainean jardunez.	561.303,49	
	Eskubideak urratzen edo kaltetzen dituzten egoerak jasan dituzten haur eta nerabeen berreskurapena eta garapen osoa eta harmonikoa bultzatzea, bereziki indarkeria matxistaren biktima direnekin.	21.918.625,66	
	Genero-estereotipoak gainditzeko lanean jarraitzea, pertzepzioak eta jarrerak aldatzea sustatuz eta analisi hori lan-prozeduretan sartuz	13.836.778,48	
	Gipuzkoako haur eta nerabeen errealitatea eta, bereziki, kalteberatasun-egoerak hobeto ezagutzea, prebentzio-, detekzio-, arreta- eta babes-sareek emandako erantzunak hobeto doitzeko direla bermatzeko.	257.166,15	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Gizarte bat sortzen laguntzea, non haurren eta nerabeen ongizatea, bizi-kalitatea eta erabateko garapena lehentasuna, konpromisoa eta erantzukizun kolektiboa izango diren, eta bereziki azpimarratuko dira haien erabateko jarduna zailtzen duten desberdintasunak.	733.265,23	
Haur eta nerabeentzat kaltegarria den edo haien eskubideak urratzen dituen egoera bat agertzeak ekar ditzakeen arriskuak eta kalteak mugatzea.	7.505.638,28	
 <p>18-kultura eta hizkuntza aniztasuna 18-kultura eta hizkuntza aniztasuna</p>	<b>38.200,86</b>	
<p><b>Helburua</b> - Minorizazio-egoeran dauden hizkuntzak dituzten komunitateak ahalduntzea eta ikusaraztea, identitate desberdinak indartzeko.</p>	38.200,86	
<b>Ekintza lerroak</b>		
Kalitatearen kultura eta kalitatearen etengabeko hobekuntza sartzea haurrak eta nerabeak artatzeko zerbitzuetan eta zentroetan, ekintza publikoaren sektore guztietan	38.200,86	
<b>Guztira</b>	<b>64.596.801,35</b>	

**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2024	2025	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2026	2027	2028	2029 eta hurrengoak/ 2029 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	2.678.336,00	2.639.088,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	39.358.366,91	41.023.237,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	18.985.852,88	21.013.800,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>61.022.555,79</b>	<b>64.676.125,00</b>					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>							
<b>Guztira / Total</b>	<b>61.022.555,79</b>	<b>64.676.125,00</b>					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL		2.639.088,14				2.639.088,14
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		41.023.237,35				41.023.237,35
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES		21.013.800,12				21.013.800,12
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
<b>Eragiketa arruntak, guztira</b> <b>Total operaciones corrientes</b>		<b>64.676.125,61</b>				<b>64.676.125,61</b>
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira</b> <b>Total operaciones de capital</b>						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira</b> <b>Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>		<b>64.676.125,61</b>				<b>64.676.125,61</b>

Sarrerren kapituluak / Capítulos de ingresos	2024	2025	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK IMPUESTOS DIRECTOS			
2. ZEHARKAKO ZERGAK IMPUESTOS INDIRECTOS			
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK TASAS Y OTROS INGRESOS	5.000,00	5.000,00	
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
5. ONDARE SARRERAK INGRESOS PATRIMONIALES			
<b>Eragiketa arruntak, guztira</b> <b>Total operaciones corrientes</b>	<b>5.000,00</b>	<b>5.000,00</b>	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA ENAJENACION DE INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira</b> <b>Total operaciones de capital</b>			
8. AKTIKO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS			
<b>Finantza eragiketak, guztira</b> <b>Total operaciones financieras</b>			
<b>Guztira / Total</b>	<b>5.000,00</b>	<b>5.000,00</b>	